



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2022/23 Denboraldia

11. ZIRKULARRA

GAZTEEN EUSKAL LIGA LEHIAKETAKO ARAUAK ETA OINARRIAK

Zirkular honen bidez argitaratzen da Gazteen Euskal Ligako 2020/21 denboraldiko antolakuntza eta garapena arautzen duen araudia.

Aipatutako arauak eta dagozkien eranskinak bildu dira.

Bilbo, 2022ko irailaren 9a

ALLICA


KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

GAZTEEN EUSKAL LIGA LEHIAKETAKO ARAUAK ETA OINARRIAK

2022/2023 DENBORALDIA





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

XEDAPEN OROKORRAK

AURREKOA. - APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDEA.

2022/2023 denboraldian autonomi mailako Gazteen Euskal Ligako lehiaketa ofizialaren antolakuntza eta garapena Euskadiko Futbol Federakundeak (EFF-FVF aurrerantzean) argitaratutako oinarrien eta araudien mende egongo dira, federazioaren antolamendu juridikoko gainerako arauetan xedatuari kalterik egin gabe.

EFF-FVF-ak beretzat gordetzen du bere eskumeneko beharrezko aldaketak sartzeko eskubidea, edo dagokionean, eskudun organoari proposatzekoa eta lehiaketako araudi eta oinarri hauek interpretatzekoa.

LEHENA. - LEHIAKETAREN TITULARTASUNA ETA SAILKAPENA.

Gazteen Euskal Liga autonomi mailako gazteen lehiaketa ofiziala da, eta EFF-FVF-ri dagokio lehiaketaren titulartasuna.

BIGARRENA. - EGUTEGIA.

Lehiaketa egutegi ofizialaren arabera egingo da, eta egutegi hori zirkular honi lotuko zaio, 1. eranskin gisa.

HIRUGARRENA. - LIZENTZIAK ESKATZEKO ALDIAK.

2022/2023 denboraldirako lizentziak eskatzeko epea 2022ko uztailaren 1ean hasiko da, eta, EFF-FVFren Erregelamendu Orokorren arabera, azken bost partidetatik lehena egin baino berrogeita zortzi ordu lehenago amaituko da. Maila nazionaleko gazteen lehiaketek beren lehiaketak aldeztu aurretik amaitzen dituztenez, eta klub bereko goi-mailako jokariengandik datozen jokarietara plantillak indartzea saihesteko, EFF-FVFak erabaki du futbolari bat Gazteen Euskal Ligan lerrotatu ahal izateko lizentzia eduki behar duela 2023eko apirilaren 1ean baino lehen.

LAUGARRENA. - LIZENTZIA KOPURUA, TALDE BAKOITZEKO.

Gazteen Euskal Ligako klubek gehienez 25 jokari-lizentzia lortu ahal izango dituzte.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

BOSTGARRENA. - JOKOKO ARAUAK.

Partidak eta lehiaketa, betiere, International Football Association Board-en (IFAB) Joko Arauen arabera jokatuko dira.

SEIGARRENA. - BALOI OFIZIALA.

Partidak jokatzeko erabiliko den baloia Adidas markako **TIRO COMPETITION** izango da.

ZAZPIGARRENA. - UNIFORMEAK.

1. Futbolarien uniformeek horretarako Erregelamendu Orokorrean jasotako xedapenak bete beharko dituzte, eta gutxienez bi eta gehienez hiru izan beharko dute; eta EFF-FVF-ri jakinarazi beharko zaie kirol-denboraldi bakoitzeko lehiaketa ofizialeko lehen partida izan baino hamabost egun lehenago gutxienez.
2. Klubak lehenengo uniforme ofizialarekin arituko dira, elkarren aurka aritu behar duten bi taldeen uniformeak berdinak ez badira; berdinak edo antzekoak izanez gero, eta epaileak usteko balu horrek nahasmena ekar dezakeela, kanpoko zelaian ari denak aldatu egin beharko du berea, aldiz, partida zelai neutralean bada, EFF-FVF-en afiliatorik modernoena duen taldeak aldatu beharko du.
3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, klubek bidaia hasi aurretik hartu beharko dituzte uniformeak aldatu ahal izateko neurriak, ondorioz, bi ekipamendu eraman beharko dituzte nahitaez.
4. Kamisetaren atzealdean, ondo ikusteko moduan, nabarmenduta eta kontraste nahikoarekin, dagokien lerrotatze-zenbakia agertuko da: 1etik 11ra titularrak eta 12tik 20ra ordezkioak, gehienez ere, hogeita bost zentimetroko altueran.
5. Nahi duten klubek 1etik 25era bitarteko zenbakiak ezarri ahal izango dituzte gehienez, eta bakoitzak partida guzti-guztietan erakutsi beharko ditu. 1 eta 13 zenbakiak atezaintzat gordeko dira. Modalitate hori aukeratzen duten klubek EFF-FVF-ri jakinarazi beharko diote, lehiaketa hasi baino hamar egun lehenago, beren plantillako futbolarien zerrenda eta bakoitzari egotzitako dortsal zenbakia. Klub filialetako edo mendeko taldeetako jokalariek ere zenbaki finko batekin jardun beharko dute parte hartzen duten bakoitzean, 26tik aurrera.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

ZORTZIGARRENA. - LANALDIA ETA ORDUTEGIAK.

- a) Egutegi ofizialean finkatutako egunetan izango dira partidak, Araudi Orokorrean xedatuari eta EFF-FVF-ak adostuari kalterik egin gabe.
- b) Partidak igandean izango dira, etxeko taldeak erabakitzen duen bezala. Dena dela, EFF-FVF-ak adostu du klubek partida larunbatera aurreratu dezaketela, 15:30etik 19:30era bitarteko edozein ordutara, talde aurkariaren adostasunik gabe.
- c) Halaber, igandeetarako ordutegi-tarte bat ezarri da, eta tarte horretan hasi beharko dira partidak, 10:30etik 13:15era eta 15:30etik 19:30etara, klubak ados jarri ezean.
- d) Partidak lanegunetan egiten direnean, klub antolatzaileek 19:30etik 20:30era bitartean finkatuko dute hasteko ordua. Kluben batek ordutegia aldatu nahi badu, aurkariaren baimena beharko du, eta hark idatziz adieraziko du.
- e) Klubek EFF-FVFri eta aurka egiten duen taldeari jakinarazi beharko diete partidaren ordutegia, gutxienez, partida hasi baino zazpi egun lehenago, horretarako EFF-FVFren intranetean jarritako pasabidearen bidez edo, bestela, posta elektronikoz, helbide honetara idatzita: info@euskadifutbol.eus

BEDERATZIGARRENA. - JOKALEKUA ETA INSTALAZIOAK

Gazteen Euskal Ligako Txapelketako instalazioei dagokienez, klubek EFF-FVFri jakinarazi beharko diote, lehiaketa hasi baino hamabost egun lehenago gutxienez, egoera, neurriak, azalera-mota eta jokaleku alternatibo bat. Instalazio guztiek Erregelamendu Orokorreko 71. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa bete beharko dute.

HAMARGARRENA. - JOKALARIEN ZERRENDA.

1. Partida hasi baino lehen, talde bakoitzeko futbolari titularren eta aldi baterako ordezkoen zerrenda eman beharko zaio arbitroari, baita aulkian jar daitezkeen teknikarien zerrenda ere.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2. Menpeko taldeetatik edo talde filialetatik datozen jokalariaik, Erregelamendu Orokorreko 14. eta 19. artikuluen arabera, futbolari titularren edo ordezkoen zerrendan sar badaitezke, esku hartuko duten taldeko jokalarientzat erregelamenduz ezarritako epean inskribatu beharko dira. Partidaren garapenari dagokionez, horietako lau jokalarik parte hartu ahal izango dute gehienez zelaian.
3. Denboraldian zehar talde nagusian edo babeslean parte hartzeko aukera bertan behera geratuko da, baldin eta jokalariei, goikoan izena emanda egon arren, denboraldi berean baja eman eta beheragokoan formalizatu bazaie izen-ematea.
4. Jokalarien zerrendak ez du inola ere Araudi Orokorren 88. artikuluan xedatutakoa urratuko.

HAMAIKAGARRENA. - ORDEZKOAK ETA ORDEZKAPENAK.

Ordezkoen kopurua ezin izango da, inola ere, zazpi futbolari baino gehiagokoa izan.

Partida batean gehienez ere ordezko **bost** jokalarik jokatu ahal izango dute, jokalaria titular bat ordezkatuta, talde bakoitzari alde aurretik arbitroak onetsitako hiru etenalditan, orotara.

Hori egin ondoren, jokalaria ordezkatuak irten egin beharko du jokalekutik, hark gertuen duen muga-lerroa igarota, eta ezin izango du berriz lehian parte hartu.

Hori guztia International Football Association Boardek (IFAB) emandako 2020ko 19. eta 20. zirkularretan jasotakoari jarraituta.

Partidan zehar, beroketa ariketak 1. zenbakiko arbitro laguntzailea dagoen bandan soilik egin ahal izango dituzte jokalariek, gehienez hiru jokalarik talde bakoitzeko. Kanpora bidalitako futbolari bat ezin izango da inolaz ere ordezkatu.

HAMABIGARRENA. - PUBLIZITATEA.

Partida hasteko adierazitako orduetik aurrera, ezin izango da inolako publizitaterik erakutsi arlo teknikoan, ez eta jokalekuan, banda-marratik edo helmuga-marratik kanporantz metro batera ere, ez ateen markoetan eta sareetan, ezta kornarren banderatxoetan ere. Ondorio horietarako, jokalekua da hau da: bera osatzen duen laukizuzenaren guztizkoa, ateen albokoak barne.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

HAMAHIRUGARRENA. - ENTRENATZAILEAK.

Gogorarazten da nahitaezkoa dela entrenatzaile tituluduna izatea, gutxienez 1. mailakoa edo entrenatzaile izateko oinarritzko diploma/UEFA B lizentzia.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, entrenatzaileak bere taldeak edozein txapelketatan jokatzeko dituen partidetan egon beharko du, dagokion aktan hala agertuko da eta bere eserlekua beteko du partidaren zehar.

HAMALAU GARRENA. - DELEKATUAK.

Gogorarazten da nahitaezkoa dela gutxienez taldeko ordezkari bat izatea, kategorian izapidetutako federazio-lizentziarekin.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ordezkariak bere taldeak edozein txapelketatan jokatzeko dituen partidetan egon beharko du, eta hala agertuko da dagokion aktan eta bere eserlekua beteko du partidaren zehar.

HAMABOST GARRENA. - ARBITRAJEA.

Arbitroen izendapenari eta arbitroen ordainsariei buruzko alderdiei dagokienez, EFF-FVFren Erregelamendu Orokorrean eta Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoak eta organo eskudunak hartutako erabakietan xedatutakoari jarraituko zaio, hala badagokio.

EFF-FVFK 2022/23 denboraldirako onartu duen tarifa **50 €**-ko ordainagiri bakarra da.

Zenbateko horretan kontzeptu guztiak sartzen dira, bai arbitraje-eskubideak, bai arbitroaren dietak eta bidaiaragastuak. Ordainagiri hori jokalekuaren titularrak ordaindu beharko du.

Ordainketa banku-transferentziaren bidez egingo da, Arbitroen Euskal Batzordeak prestatzen duen kontuan, jakinarazten diren aukeren artean klubak aukeratzeko duen modalitatean.

Klubek lurraldetasun desberdineko (eremu autonomikoko) arbitroa eskatuz gero, partida egin baino zazpi egun lehenago egin beharko da gutxienez, eta sortutako gastu guztiak eskatzailearen kontura izango dira.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

HAMASEIGARRENA.- OHARTARAZPEN ETA ZIGOR ZIKLOAK ZEHAZTEA.

Gazteen Euskal Liga Txapelketan, denboraldi berean bost ohartarazpen metatuz gero, jokalariak ezingo du hurrengo partida jokatu, eta EFF-FVF-ko Diziiplina Kodearen 30. artikuluan, kasu bakoitzaren arabera, aurreikusitako diru-osagarria ordaindu beharko du.

EFF-FVF-ko Zigor Kodeko 34. artikuluan xedatuaren mende daude partidetakozigoren zehapenak.

HAMAZAZPIGARRENA. – DIZIPLINA ARAUDIA.

Lehiaketa hau Euskadiko Futbol Federakundearen Diziiplina Araudiaren arabera arautuko da, eta sortzen diren gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundeko Diziiplina eta Apelazio Batzordeak izango dira.

HAMAZORTZIGARRENA.- ESKUERAKUTSIK ETA OMENALDIK EGITEA

Denboraldi honetarako zirkularraren arabera, gorazarre egiteko, omentzeko edo aitortzak egiteko ekintzak EFF-FVFak baimendu beharko dituzte, eta gehienez ere partida hasi baino 72 ordu lehenago egin beharko da eskaria. EFF-FVFri ekitaldi hauek egiteko baino ez zaio eskatuko baimena:

- a) Minutuko isilunea egiteko edota elastikoan besoko beltza eramateko. Errespetuzko omenaldia eragiten duen heriotza aurreikusitako epetik kanpo gertatzen bada, ez da beharrezkoa izango RFEFren baimena, eta omenaldia egin nahi duen taldeko ordezkariak horren berri eman beharko dio arbitroari, instalaziora iristean, partida egiteko behar diren neurriak har ditzan.
- b) Ohorezko sakeak.
- c) Trofeoak ematen direnean, partida hasi baino zazpi minutu lehenago bukatu beharko dute.
- d) Klubak zaleei, oinarrizko futbol-taldeei eta bestelakoei egin nahi dizkien omenaldiak: ekitaldi horiek partida hasi baino zazpi minutu lehenago bukatu beharko dira.

Euskal futbol osoaren edo maila jakin baten edota berariazko txapelketa baten izenean ekitaldiak adosteko eskumena EFF-FVF-ak baino ez du izango.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

HEMERETZIGARRENA. – PARTE HARTZEKO ADINAK.

2004., 2005. eta 2006. urteetan edo geroago jaiotako jokalariek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan

GAZTEEN EUSKAL LIGAKO LEHIAKETAKO OINARRIAK

LEHENA. - PARTE HARTZEN DUTEN TALDEAK.

Gazteen Euskal Ligako taldea 18 klubek osatzen dute (2. eranskina).

BIGARRENA. - ONDORIOAK SAILKAPENEAN.

1. Txapeldunak.

Gazteen Euskal Ligako txapelduna lehen postuan sailkatzen dena izango da.

2. Igoera.

Gazteen Nazional Ligara igoko dira azken sailkapenean ondoen sailkatuta dauden hiru klubak, filialtasun- edo mendekotasun-loturen ondorioak betetzen badituzte.

Kategoria horretara igoko dira, halaber, Gazteen Ohorezko Mailako Federakuntza honetako taldeen jaitsierak direla-eta sortzen diren hutsen ondorioz filialtasun- edo mendekotasun-loturen ondorioak betetzen dituzten sailkapenean hurrenak.

3. Jaitsierak.

Mailaz jaitsiko dira 17 eta 18. postuetan dauden klubak.

Maila ere galduko dute, nahiz eta postu horietan ez egon, behar den azken sailkapeneko aurre-aurrekoek, federakuntza honetako taldeetan, goiko mailetan, gerta daitezkeen jaitsieren ondorioz, betiere egoera horrek klub gehiegi izatea badakar aipatutako mailan, kontuan hartuta 2023/24 denboraldirako Gazteen Euskal Liga 18 taldekoa izan beharko dela.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

4. Bazterketak edo ez-agertzeak.

Bi aldiz ez agertzeagatik lehiaketatik kanpo gelditzen den kluba, edo lehiaketatik erretiratzen dena, ez da parte-hartzailatzat hartuko, sailkapeneko azken tokia hartuko du, zero punturekin, eta aurreikusitako jaitsiera-postuen artean konputatuko da.

5. Filialtasun- edo mendekotasun-loturen ondorioa.

Filialak eta menpeko taldeak ezin izango dira klub babeslearen kategoria edo maila berean egon. Klub babeslea edo nagusia beheragoko kategoria batera jaitsiko balitz, eta bertan filial edo menpeko talde batek parte hartuko balu, hori ere beheko kategoriara jaitsiko litzateke.



Klub filialek edo menpekoek ezin izango dute bigarren fasean parte hartu, baldin eta babesleak edo nagusiak plaza bat hartzen badu igo daitekeen kategorian. Egutegian alde handiak izateagatik, talde babeslearen edo filialaren azken sailkapeneko behin betiko postu jakitea ezinezkoa denean, bigarren fasea jokatu ahal izango dute, baina, talde nagusiak edo babesleak kategoria berean segituz gero, igoera ez litzateke gauzatuko.

Filialtasunaren loturak ez du balioko, inola ere, arauzko xedapenak edo lehiaketa-oinarri hauek saihesteko.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

1. ERANSKINA





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

	abu-22		ira-22		urr-22		aza-22
	GEL		GEL		GEL		GEL
7		4		2	4. IHA.	6	9. IHA.
14		11	1. IHA.	9	5. IHA.	13	10. IHA.
21		18	2. IHA.	16	6. IHA.	20	11. IHA.
28		25	3. IHA.	23	7. IHA.	27	12. IHA.
				30	8. IHA.		



	abe-22		urt-23		ots-23	IHA.	mar-23
	GEL		GEL		GEL		GEL
4	13. IHA.	1	Gabonak	5	20. IHA.	5	24. IHA.
11	14. IHA.	8	16. IHA.	12	21. IHA.	12	25. IHA.
18	15. IHA.	15	17. IHA.	19	22. IHA.	19	26. IHA.
25	Gabonak	22	18. IHA.	26	23. IHA.	26	27. IHA.
		29	19. IHA.				


	api-23		mai-23		eka-23
	GEL		GEL		GEL
2	28. IHA.	7	32. IHA.	4	Kopa
9	Aste Santua	14	33. IHA.	9	Kopa
16	29. IHA.	21	34. IHA.	11	Kopa
23	30. IHA.	28	Kopa	18	
30	31. IHA.			25	



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2. ERANSKINA





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2022/2023 DENBORALDIA

GAZTEEN EUSKAL LIGA TXAPELKETA

PARTE HARTZEN DUTEN KLUBAK

Hurrengo 18 klubek osatzen dute 2022/23 denboraldirako Gazteen Euskal Ligako multzoa:

Gazteen Euskal Liga.- Antiguoko K.K.E. "C", Añorga K.K.E., U.D. Aretxabaleta, C.D. Ariznabarra, C.D. Basconia, Bergara K.E., Beti Gazte K.J.K.E., C.D. Betoño, Danok Bat Club "C", S.D. Deusto, C.D. Galdakao, S.D. Gernika, S.D. Indautxu, C.D.F. Lakua de Vitoria – Gasteiz, S.D. Leioa "B", C.D. Olarizu, Romo F.C., C.D. Urdaneta, (18)

